

Oso ideia polita da zinemaldi honena, eta polita zen kultura idatzian zentsuraren atzaparrak erakustea. Politia, baina mugatua, ez osoa. Esan nahi bait da, nola «erakutsi», sortzera ere iritsi ez zen hainbat filma, hainbat liburu, errepresioaren beldurra eta kontrol ideologikoaren presioa zirela medio? Zentsuraren kalterik handiena ez bait da tatxadura edo ebaketa batzuk egin izana, autozentsura baizik, hots, ideiak eta informazioa jaiouurretik hiltzea, arraultzean hiltzea. Eta, jakina, horrek ez du inongo pantailatan agertzerik, ez eta inongo erakusketetan. ■  
Joan Altzibar.

## LA VOZ: Espainiatik Euskadira

Maiatza sasoi aproposa dirudi kazetaritzarako. Iaz *Tribuna Vasca* sortu zen Bilbon, eta aurten *La Voz de Euskadi* jaio da maiatzaren 25ean Lezon. «Demokraziaren lore berri bat» esango luke bestek. Maiatza ez al da ba, loreen hila?

Eta ni pozik. Zorionak eman eta eman. Iaz TVri eman nizkion. Aurten *La Voz*-i. Harrigarri? Bat baino gehiago harritu (eta ia-ia hasarretu) zen iaz TVri ongi etorria eman niola eta. Neure burua ia-ia zuritu beharrean aurkitu nintzen. Lehengo lepotik dut burua orain ere: egunkari baten jaiotzak poztu egiten nau (txanpon gehiago gastatzera behartzen banau ere), adierazpen-askatasunaren garantizat jotzen dut. Eta hori inportantea da. Are inportanteagoa, egunkari hori «pluralista y progresista, radicalmente independiente de cualquier grupo económico y político» baldin bada. Honela aitortzen du bere burua *La Voz*-ek.

Pluralista, aurrerazale, independiente da *La Voz*. Hala izan dadila luzaroan opa diot, lehen orduko aitorten hauek, zoritxarrez, gutxi balio bait dute. Urte baten buruan nork sinets dezake TV «independiente, liberal y progresista» denik? Bai, aitorten hauek «hitz huts» bilakatzen dira, pluralzaletasun, aurrerazaletasun eta independentzia horiek praxiak erakusten ez dituenean. Egunero. Luzaroan.

Egunkarietan, ezaguna denez, lanak ditu independentzia babestek. Hortxe ikusten dut *La Voz*-en Akilesen orpoa ere.

Espereintzia berri bat da *La Voz*, «Sociedad Anónima Laboral» deitzen dena, langileek berek finantzatua eta kudeatua. Horra hor egunkariaren independentziaren garantia, zimentatua.

rria. Garantia hori 100 miloekoa da. Zer da, baina, 100 miloe tamaina honetako enpresa batentzat? Deus gutxi, gutxiegi irauan ahal izateko. Independiente irauan ahal izateko, behintzat, bai.

Txukuna, egokia, atsegina, argia aurkitu dut *La Voz*. Atsegin gertatu zait bere lehen zenbakitan. Irakurterraza egin zait. Ez horrela «Gaiak» saila, euskarazko saila. Lekuz kanpo bezala, egunkarian integratu gabe ikusten dut atal hori. Ez da hori euskal kazetaritzat behar zuen aurrerapidea.

*La Voz de España*-tik dator *La Voz de Euskadi*. Espainia-tik Euskadira. Ongi etorria. ■ *Joan Altzibar*.

## Joseba Intxausti: 25 urte JAKINen

Aurten da 25 urte Joseba Intxausti *Jakin*-en idazten hasi zela, 1958an, gaur arte lankidetzan jarraitzeko. Hasi, egia esateko, lehenago hasi zen, 1957an: baina bere lehenengo urte hartan izenorde batekin zinatu zuen.

Sortzaileak utziaz inork ez bait du gero aldizkarian jarraitu, gaurko *Jakin* hau egiaz egin dutenak, Joseba Intxausti eta Joan Mari Torrealdai izan dira, nahiz lankideak eta laguntzaileak biok izan aldioro.

Barnetik begiratuta, *Jakin*-en 25 urteak hura egiten zihar-dutenen 25 urteak dira. Hona hemen, *Jakin*-en historian, Joseba Intxaustiren historiatxo aldizkariaren barruan.

1956tik, hau da, sorreratik 1959ra artean sortzaile talde osoa ihardun bazen zuzendari eta erredakzio gisa batera, urte hone-tan funtzionaketa modu berri bat abiatu zen aldizkarian, Joseba Intxausti eta Kepa Enbeita Zuzendaritzaren kargu eginez. Hauek izan dira *Jakin*-en lehenengo Zuzendari propioak, nominalak. Hiru urte egon zen Joseba Zuzendaritzan, aldizkariari joera berri bat emanez. Beste zortzi urtetan lankide gisa, kanpotik, lagundu ondoren, 1970etik aurrera, gaur arte, berriro Zuzendaritzan edo laguntzaile taldean ibili zaigu, eginkizun desberdinen erantzule. Hau izan da, labur-labur, haren bidea *Jakin*-en.

Aldizkariak Intxaustiri zor dion txitezkoena hitz bakar batez adieraztekotan, beti haren normalizazioan aritu dela, behar izan duela, esango genuke.